## ERAGINPEAN EGON ONDORENGO ROFILAXIA (EEP)

EOP birusek atzera ez egitearen aurkako farmakoekin egindako tratamendu bat da. Tratamendu hori burutzen da GIB eraginpean egoteko aukera izan denean, adibidez, GIB positiboa duen gizon batekin koitoa eiakulazioarekin eduki ondoren, preserbatiborik gabe edo hura puskatu ondoren.

Farmako hauek bakarrik ohiz kanpoko egoeretan hartu behar dira, medikuak eta gaixoak adostasunez erabaki ondoren, eta arriskuak eta onurak kontuan izanik. Doanekoak dira eta ospitalean ematen dira. Tratamendu honek 28 egun irauten ditu eta ez du bermatzen infekziorik egongo ez dela. Horretaz gain, arriskuak eta bigarren mailako ondorioak izan ditzake osasunean. Ahalik eta lasterren ekin behar zaio tratamendu horri eta beti eraginpean egon ondorengo 72 ordu pasa baino lehen.

Gomendatzen da aldian-aldian eta ohiz kanpo arriskuaren eraginpean egon direnek bakarrik EOP hartzea. Ez da gomendatzen GIB birusaren arriskua duten sexu harremanak behin eta berriro errepikatzen direnean.

GIB/HIESA/ISI PREBENITZEKO KANPAINA
Doaneko informazio telefonoak: 900 601 601 / 900 111 000
www.msc.es

Con la colaboración de:

Con el apoyo de:


Gozatu
Guk segurtasunez gozatzen dugu
Zeuk erabaki.